

Berrobi

BERROBIKO BARATZE PARKE PUBLIKOEN ERABILERA LIZENTZIEN LAGAPENARI **BURUZKO DEIALDIA**

Aurkibidea:

- 1. Baratzen deskribapena**
- 2. Eskatzaileen baldintzak**
- 3. Eskaera egiteko epea**
- 4. Baimenaren iraupena**
- 5. Prozedura**
- 6. Zozketa irizpideak**
- 7. Baimena esleitzea**
- 8. Erabilera eta aprobetxamendu baldintzak**

Berrobiko Baratze Parkea publikoa irekitzear dagoenez, Berrobiko herritarrei zuzendutako deialdia egiten da.

Deialdi honetan 18 baratza gutxi gorabehera eskainiko dira, hauetatik lau interes-taldeentzat zuzendurik egongo dira. Bakoitzaren azalera 40 m²koa izanik.

1. Baratzen deskribapena


Deialdi honetan Berrobiko Baratze Parkeko lurretan dauden baratza publikoak erabiltzeko zerbitzu publikoa eskaintzen zaie berrobitarrei.

Baratza publiko hauek ekipatuak izango dira, hau da, erabiltzeileen eskura hurrengo instalazio komunak izango dituzte:

- Biltegia lanabesekin
- Ureztatzeko ur-puntuak, baratzetatik hurbil.
- Bide sarea

2. Eskatzaileen baldintzak

Berrobiko Baratze Parkeko baratza publikoen erabiltzaileek “Berrobiko baratza publikoaren emakida eta erabilera arauzten duen ordenantza” ezarritakoa bete beharko dute eta baimena eskatzearekin batera, ordenantza horrek dioena onartuzat joko da.



Berrobi

Berrobiko Baratze Parkeko baratza publiko bat eskatzeko honako baldintzak bete beharko dira:

- a) Esleipenarako deialdia argitaratu orduko 18 urte izatea eta Berrobin erroldatua egotea.
- b) Berrobiko udalarekiko zerga-betebeharrak eta bestelako betebeharrak ordainduta izatea.
- c) Beste baratze baten erabiltzaile den bizikidetzta-unitate kide ez izatea.

3. Eskaera egiteko epea

Eskaera aurkezteko epea **2016ko ekainaren 30a** artekoa izango da.


4. Baimenen iraupena

Baimenak urtebeteko iraupena izango dute, eta 3 urtera arte luzatu ahal izango dira gehienez. Nahi izanez gero, persona erabiltzaileek hurrengo deialdietan ere parte hartu ahal izango dute.

Urteko luzapenak automatikoki egingo dira, amaitu baino lehenago aldeek kontrakorik adierazten ez badute.

5. Prozedura

Baratze Parke publikoen esleipenean interesa duten pertsonak esandako epean eskabide bat aurkeztu beharko dute Udal erregistroan eredu ofizialean, non sinatuko dute deialdi honen 2. Oinarrian eta 2016ko apirilaren 13ko Plenoak onartutako baratze publikoen ordenantza ezarritako baldintza betetzea egiaztatzen duten zinpeko aitortpena.



Berrobi

Halaber, Udalak ofizioz egiaztatuko du eskatzailea Berrobin erroldatuta dagoela, eta Udalarekiko zerga-betebeharra guztiak bete dituela.

Gero, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda argitaratuko da (iragarki taulan eta web-an).

Interesdunek hamar egun naturaleko epea izango dute erreklamazioak aurkezteko.

Epe hori amaituta, eta jasotako erreklamazioak ebatzita, onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda argitaratuko da.

Jendeurreko zozketak idazkari Kontu-hartzailearen aurrean egingo dira, eta horien data jakinaraziko dira.

Ondoren, esleituak eta, behar bada, itxaron zerrendaren behin betiko zerrendak argitaratuko dira, udaletxeko iragarki taulan eta web gunean.

Zerrenda argitaratu ondoren, onuradunek uko egiteko 3 eguneko epea izango dute, eta idatziz egin beharko dute.

6. Zozketa irizpideak

Behin betiko zerrendan agertzen direnen artean egingo dira zozketak.


Eskatzaileen kopurua lursailen kopuru baina handiagoa bada eskatzaileen artean lehen zozketa bat egingo da. Zozketan ateratzen direnak baratzaren jabeak izango dira, eta behin lursailak markatzen direnean bigarren zozketa bat egingo da lurjabe bakoitzari zein lursail dagokion ezartzeko.

7. Baimenak esleitzea

Baratzearen erabilerarako baimena esleitu ondoren, esleipendunak urteko prezio publikoa autolikidatu eta fidantza ordaindu beharko du baimena jasotzeko.

Honako kopuruak dira:

- Prezio publikoa: 2016rako : 60€/urteko



Berrobi

- Fidantza : 50€

Fidantza itzuliko da, esleipenerako epea igaro ondoren edo emakidadunak uko egiten badu, baldin era lursaila hartutako egoeran uzten bada.

Titularrari baimena kentzen zaionean huts egiteak izan direlako, fidantza ez zaio itzuliko.

8. Erabilera eta aprobetxamendu baldintzak

Berrobiko baratza publikoen emakida eta erabilera arautzen duen ordenantzan ezarritakoa bete beharko da.

Berrobi, 2016ko ekainak 15

ERANSKINA I / ANEXO I

ESKAERA ORRIA / SOLICITUD
HERRI BARATZAK / HUERTOS MUNICIPALES

ESKATZAILEAREN DATUAK / DATOS DEL SOLICITANTE:

IZENA-ABIZENAK / NOMBRE Y APELLIDOS		NAN / DNI
HELBIDEA / DIRECCIÓN		
P.K. / C.P.	UDALERRIA / MUNICIPIO	HERRIALDEA / PROVINCIA

ORDEZKARIA / REPRESENTANTE: (Dokumentuak aurkezten dituen eskaeraren izenduna ez denean bakarrik bete / Rellenar únicamente si el que presenta los documentos no es el titular de la solicitud)

IZENA-ABIZENAK / NOMBRE Y APELLIDOS		NAN / DNI
HELBIDEA / DIRECCIÓN		
P.K. / C.P.	UDALERRIA / MUNICIPIO	HERRIALDEA / PROVINCIA

JAKINARAZPENETARAKO / PARA NOTIFICACIONES:

HELBIDEA / DIRECCIÓN		
P.K. / C.P.	UDALERRIA / MUNICIPIO	HERRIALDEA / PROVINCIA
TELEFONOA / TELÉFONO	Helbide elektronikoa / correo electrónico	

ESKAERA / SOLICITUD:

Honako honen bitartez, herri-baratzaren emakida eskatzen dut / Solicito concesión de una huerta municipal.
Honako honi atxikirik, N.A.N.-ren kopia konpulsatua aurkezten dudala / Adjunto a la presente solicitud copia compulsada del D.N.I.

Eskatzaile edo ordezkariaren sinadura / Firma Solicitante o representante	20__ (e)ko _____ (a)ren _____ (a) , a _____ de _____ de 20__
---	---

ERANSKINA II / ANEXO II ZINPEKO AITORPENA / DECLARACIÓN JURADA

.....Jnak,/And.ak,.....
.....n helbidea dudanak,..... N.A.N. zenbakia eta telefono
zenbakia dudanak, zinpean adierazten dut:

- a) Berrobiko Udalarekin ditudan fiskal izaerako betebeharrekin egunean aurkitzen naizela.
- b) Ez naizela aurkitzen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu legegileak, zeinak Sektore publikoko Kontratuaren Legearen Testu Bategina onartzen duen, bere 60. Artikuluan xedatzen dituen sektore publikoarekin kontratatatzeko debeku kasuren batean.
- c) Beste baratze baten erabiltzaile den bizikidetz-unitate kide ez naiz.

Berrobi, 20...(e)ko.....(a)ren.....(e)an.

Sinadura

D/Dña con domicilio en
..... DNI nº, teléfono
....., declaro bajo juramento:

- a) Estar al corriente en el pago de las obligaciones tributarias con el Ayuntamiento de Berrobi.
- b) No estar incurso en alguna de las prohibiciones para contratar con el sector público a que se refiere el artículo 60 del Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Contratos del Sector Público.
- c) No soy miembro de la unidad familiar usuario de otra huerta.

En Berrobi, ade.....de 20.....

Firma